

ZM

TXEMA GARCÍA

72 maratoi munduan zehar

Imajinatzen
duzu Zorrotza
merkataritzarik
gabe?

Baduzu eskaintzarik
onena Zorrotzatik
irten barik

ZAINDU TOKIKO MERKATARITZA

EROSI AUZOAN!



UDALAREKIN EUSKARAZ?



**Zu ere
animatu zaitez**



Eusko Jaurlaritzak ez ditu alegazioak onartu eta Saderren jabeari portura lekualdatzeko baimena eman dio

Baimen hau izan arren, Saderrek bost urtez jarrai dezake lanean Zorrotzan eta epe horretan planta berria jarduten ez badute, prozesua berriro hasiko litzateke.

ZORROTZ MORROTZ

Eusko Jaurlaritzak ingurumen baimena eman dio Agaleus taldeak —Sader eta Profersa enpresen jabea denak— Bilboko portuan eraiki nahi duen instalazio berriari. Azpiegitura hau funtsezkoa izango da bi enpresek gaur egun gure auzoan duten jarduera bertan behera uzteko. Izan ere, Saderrek egun egiten duen lana (hondakin arriskutsu zein ez-arriskutsuen tratamendua eta deuseztatzea) portuko planta berrira eramango da. Profersaren kasuan, hondakinetatik ongarriak ekoizten dituen enpresa den aldetik, taldearen asmoa jarduera etetea da.

Azpiegitura hau funtsezkoa da Saderrek auzoan duen jarduera betiko eteteko

Zorrotzako eta inguruko auzoetako bizilagunek urteak daramatzate lekualdaketa hau eskatzen, usain eta keek sortzen dituzten eragozpenengatik. Kezkak Getxo eta San-

turtzira ere zabaldu ziren, eta han hainbat indar politikok alegazioak aurkeztu zituzten, proiektuaren distantzia, usain, substantzia arriskutsu eta ingurumen eraginak zalantzan jarri. Eusko Jaurlaritzak ez ditu aintzat hartu guztira aurkeztuta bost idazkiak, eta baimena eman da zenbait baldintzarekin, hala nola: emisioen eta usainen kontrola, neurri osagarriak ezartzeko aukera, eta hondakinaren garraioan prebentzio neurriak betetzea.

Borroka ez da amaitu

Sader Profersa kanpora! plataformak albiste hau pozgarrizat eman duen arren, gogorarazi du Saderrek bost urtez jarrai dezakeela lanean Zorrotzan, etxebizitzaren ondoan eta “isurketa-kontrol eraginkorrik gabeko instalazio hondatuetan”, eta epe horretan planta berrien jarduten hasten ez badute, prozesua berriro hasiko litzatekela. Era berean, agertu dira Profersarekin, ez dagoelako argi zer gertatuko den, are gehiago “lanean jarrai baitezake”. Plataformaren ustez borroka ez da amaitu, eta garrantzitsua da erne egotea gobernuari presioa egiten lekualdatzea gauzatu arte.

Zorrotzako muturreko plato berria 2027an egongo da martxan

Bilbao-Bizkaia ikus-entzunezkoen industriaren egoitza nagusia izango da

ZORROTZ MORROTZ

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak iragarri dute Punta Zorrotzan eta Urduñako Maria Konpainia ikastetxe zaharrean eraikiko direla Bilbao-Bizkaia ikus-entzunezkoen industriaren egoitza nagusiak. Iaz Bizkaian 138 milioi euro sortu zituen sektorearen gorakada indartzeko estrategia aurkeztu dute bi erakundeek.

Bilboko Udalak prest dauka egungo instalazioak urbanizatu eta berritzeko lanak martxan jartzeko lizitazioa. Lan horien bidez, eremua Bilbao-Bizkaia ikus-entzunezko hub-aren egoitza nagusi bihurtuko da. Hala adierazi zuen Juan Mari Aburto alkateak martxoaren 5ean egindako prentsaurrekoan. Proiektuak lau milioi euroko aurre-

kontua izango du, Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatua. Aurreikuspenen arabera, lanak urrian hasiko dira.

Lehen fasean, eremua itxi egingo da eta lau pabiloi zein bertako txalet zaharra egokituko dira. Horrez gain, azpiegitura eta zerbitzu-sareak berritu eta eguneratuko dira, espazioa filmaketetarako plato eta errodaje-gune gisa erabiltzeko beharretara moldatzeko.

2018tik hona, Punta Zorrotzak 30 ekoizpen baino gehiago hartu ditu. Denbora horretan, hainbat proiektuk plato, ekoizpen-bulego, arte-biltegi edo backlot gisa erabili dute espazioa; besteak beste, *El Hoyo*, *Interrail*, *La mala Rodriguez*, *Intimidación*, *Detective Touré*, *Inurri Itsuak*, *El silencio*, eta *Zeru ahoak* lanek.

cafe **txinbo**

Espezialitateak:

Tapak eta errazoiak
Kanapeak



Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74

LASTER

Elektrizitatea
elektronika

- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ARGIZTAPENA
- SARE INFORMATIKOAK

TFNO./FAX: 94 442 46 35
LARRIALDIAK: 657 79 57 04

ZORROTZA KASTREXANA
ERREP. 42, MOD. 58
ZORROTZA 48013

MADNESS KAFETEGIA
Elena eta Javier
Zabidea estrata, 5 - atzea
ZORROTZA
48013 BILBO

MADNES

Tel. 94 441 62 75

Lápices

LIBURUENDENA PAPERENDENA
PERTSONALIZAZIOAK
UNTZIOLA KALEA 8

PERSONALIZACIONES
Capricho

Udalak Txinbo parkeko paisaia egokitzeko lanak lizitatuko ditu

Zorrotza lurmuturreko erriberatik igarotzean, uholde-arriskua arintzen saiatzeko jarduketak herritarrak Kadagua ibaira hurbiltzea erraztuko du.

ZORROTZ MORROTZ

Bilboko Udalak 226.223,22 euroko aurrekontuarekin (BEZik gabe) lizitaziora atera ditu Txinbo parkearen paisaia egokitzeko lanak, Kadaguako ibilgua handitzeko. Lehiaketa publikoaren oinarrietan jasotzen denez, Kadaguan, Zorrotza lurmuturreko erriberatik igarotzean, uholde-arriskua dago eta horrek sortu du jarduketaren beharra.

Baina, gainera, jarduketaren horrek erraztu egingo du herritarrak Kadagua ibaira hurbiltzea, ibilguaren ertzaren egungo desnibelean

txertatuko diren plataforma mailakatu batzuen bidez. Plataforma horiek eta barruan harriak dituzten kaiola metalikoetatik sortutako banku berri batzuk, ibaira begira atsedean hartzeko eserleku edo begiratoki izango dira. Aldez aurretik, lanak aprobetxatuko dira Kadaguako erribera garbitzeko, eta landaretza berria jarriko da bertan.

Gainera, espaloiko zoladura ere aldatu egingo da, eta farola berriak jarriko dira. Esleitu ondoren, obrak bi hilabete eta erdian amaitzea aurreikusi da.




“Antolatuta eta beldur barik” Desokuparen aurrean

Desokupacyl enpresak Zorrotzako bizilagun bat ilegalki kaleratzeko egin duen saiakera salatzeko elkarretaratzea egin zen otsailaren 6an Zorrotza Kastrexana errepidean, AZET Etxebizitza sindikatuak eta Zorrotza Antifaxista taldeak deituta. Aste batzuk lehenago, enpresa hori

bizilaguna etxegabetzen saiatu zen. Bildutakoek “enpresa faxista honi irmoki erantzun” nahi izan zioten, baita argi utzi Zorrotzan faxistak ez direla ongi etorriak eta “antolatuta eta beldur barik” Desokupacyl enpresari aurre egingo diotela ere.

Euskal Erroten eraikinean bizi diren pertsonen presentziak amiantoa estalkitiki kentzeko obraren hasiera blokeatzen du



Poliziak atearak zigilatatu ditu, baina irekita daude eta arazorik gabe sar daiteke

Eraikina husteko prozesu judiziala hasita dago, eta Foru Aldundiko bozeramaileak adierazi duenez, martxoan edo apirilean husteko agindua jasotzean, lanak normaltasunez hasiko dira.

ZORROTZ MORROTZ

Euskal Errotak eraikinean bizi den etxerik gabeko pertsona talde baten presentziak ia urtebetez eragotzi du eraikinaren estalkitiki berreskuratzeko lanak hasia. Joan den otsailaren 26an, El Correo egunkariak informazio hori argitzera eman zuen. Bertan, azaltzen zeneraren arabera, 2025eko apirilean lana esleitu zitzaion Altuna y Uria enpresako langileak hainbatetan saiatu dira eraikinaren jabetza hartzen obrak hasteko, baina ezin izan dira barrura sartu. Izan ere, eraikina hutsik dagoela egiaztatuta behar da.

Lanen hasiera martxoan edo apirilean

Honi buruz galdetuta, Leixuri Arrizabalaga Foru Aldundiko bozeramaileak baieztatu zuen ez zekiela zenbat pertsona bizi diren eraikinaren barruan, baina jakitun zela “hainbat talde” bazeudela. Gainera, Aldundia eraikinaren jabearekin, ACSA sozietatearekin, harre-

manetan jarri zela adierazi du, “horiek baitira desokupazio judizialaren prozedura eskatu behar dutenak”. Eskaera abenduan egin zen epaitegietan, eta, Arrizabalagaren arabera, prozesu horiek bi edo hiru hilabetez luzatu ohi dira; beraz, “martxoan edo apirilean” iritsi daiteke bertatik ateratzeko agindua. Eraikina hustu ondoren, lanak normaltasunez hasiko direla ziurtatu zuen.

Egoera horren ondorioz, Eusko Jaurlaritzak 2009an Sailkatutako Kultura Ondasun izendatu zuen eraikina gero eta hondatuago dago. Gainera, bizilagunen kezka ere gero eta handiagoa da; izan ere, teilatuaren ordezkari egun dagoen fibrozementuak 19 tona amianto ditu. Teilatuaren egoera hain kaxkarra izanda, oso sarritan erortzen dira altuera handitik fibrozemento zati ugariak, eta ondorioz, kantzeringenoa den amiantoa duten partikulak airean hedatzen dira.

// Hemen oso ondo bizi gara, lasai eta zoriontsu //

WENDY PALACIOS eta JOSÉ LUÍS LADINO

Jaiotokia: “Sucursal del Cielo”, Cali (Kolonbia)

Noiztik hemen: 2023tik.

Adina: Wendy 32 eta Jose 37

Lanbidea: Jose, administraria.

Wendy, Administrazio-laguntzailea.

Migratzea ez da inoiz erraza, baina ausardiaz eta ahaleginez bitzta berria eraiki dute Zorrotzan. Hemen, lan egin, beren alabaren etorkizunerako nahi zuten bizi-kalitatea aurkitu eta komunitatean sustraiak botatzen ari dira.



TESTUA ETA ARGAZKIAK: NAROA PEÑA

Nolatan eta zergatik etorri zineten?

Hegazkinez iritsi ginen hona. Iberiar penintsula aukeratzea, neurri batean, jada “ezagutzen” genuelako izan zen, gure bigarren etorrera baitzen. Lehenengo oso garai txarrean izan zen: 2020an, pandemia batean. Orduan, 2 edo 3 hilabete baino ez ginen egon; horregatik, leku batetik bestera mugitu behar izan genuen, azkenean Kolonbiara berriro itzultzeko erabakia hartu genuen arte.

Hala ere, 2022ko otsailean berriro etorri ginen, eta Zorrotzan 2023. urtetik daramagu bizitzen. Ez genuen guztiz ezezaguna egiten zitzaigun leku batera joan nahi, eta, gainera, nolabaiteko intuizioa genuen hemen ondo joango zitzaigula.

Gogorra egin zitzaizuen lan- eta bizi-ohiturara moldatzea?

Migratzea beti da prozesu konplexua. Zure zati oso pertsonal bat uztera eramaten zaitu, eta zure gaitasun guztiak muturreraino erabiltzea eskatzen dizu. Azkenean, hori da

hemen jarraitzen dugunon eta itzultzea erabakitzen dutenen arteko aldea: gu ausartak izan gara eta geure burua berrasmatu dugu behin eta berriz.

Ia ezagutzen ez genituen lanak egin behar izan ditugu, eta desberdinak diren ohituretara egokitu ere egin behar izan dugu. Hala eta guztiz ere, pixkanaka-pixkanaka, indarrarekin eta iraunkortasunarekin, egunero hobetzer joan gara alderdi guztietan.

Zuen herrian zein lanbide zenituzten?

W. Kontratazio-laguntzailea nintzen, hemen ETT (Aldi Baterako Laneko Enpresa) deritzen enpresa horietako batean. Administrazio-kudeaketako goi-mailako ikasketak ditut.

J: Nik enpresa-administrazioiko unibertsitate-gradua dut eta diruzaintzako analista nintzen.

Oso ezberdina da hango bizimodua ala hermengoaren antzekoa da?

Nahiz eta funtsean antzekoa izan daitekeen, desberdina ere bada. Ia guztiak beste modu



“**Migratzea beti izango da prozesu konplexua. Gu ausartak izan gara eta gure burua berrasmatu dugu behin eta berriz**”

batean funtzionatzen du: sistematik bertatik hasita, eguneroko bizitza eta ohiturak arte, baita eguraldia eta hitz gutxitan azaltzea zaila izango litzatekeen beste hainbat faktore ere.

Zer da Zorrotzan gehien gustatzen zaizue-na? Eta gutxien?

Zorrotza gure etxea izan da 2023tik. Horregatik, dena gustatzen zaigu: hemen pertsona gisa hazi gara eta hemengo herritar gisa sustaiak bota ditugu. Gainera, Zorrotzan dena gertu daukagu.

Gutxien gustatzen zaiguna da metro geltoki bat eduki beharko genukeela, eta Sader enpresaren kontua ere badago; beraz, “Sader kanpora”.

Zer da gehien sumatzen duzue faltarik?

Gure familia guztia, dudarik gabe.

Zuen herrira askotan bueltatzen zarete?

Behin baino ez gara itzuli, 2025ean, konkretuki. Oso gogorra eta zaila da hain gutxi bueltatzea.

Nolakoa da zuen eguneroko bizimodua?

Asteazkenean, Emilia (gure alaba) eskolara eramaten dugu; gero, gure lanetara joaten gara. Arratsaldean, eskolatik jasotzen dugunean, parkera edo eskolaz kanpoko jardueretara eramaten dugu, eta gauean etxean afaria eta hurrengo eguneko janaria prestatzen ditugu. Asteburuan, normalean Emirekin kanpora irriten saiatzen gara: bazkaltzera joan, etxetik kanpoko jarduerak egin edo parkera joan.

Euskara ikasi duzue?

Hemen hazi ez garenontzat hizkuntza zaila da ikasteko, eta, gainera, ez dugu erreferentziarik hizkuntza hori errazago ulertzeko. Hala ere, konfiantza dugu gure alabak euskaraz ondo hitz egingo duela eta hizkuntza menperatuko duela. Gu ere pixkanaka ari gara: “egun on”, “kaixo”, “agur”... behintzat erabiltzen ditugu.

Zorrotzan betiko geratzeko erabakia hartu duzue?

Bilbon bizi ahal izateko leku bat aurkitu dugu, bizi-kalitate onarekin, eta hori da, batez ere, gure alabarentzat nahi duguna. Hemen dena gustatzen zaigu: oso ondo bizi gara, lasai eta zoriontsu, eta horregatik ez dugu beste leku batera joatea pentsatzen. Hala ere, jaioterrik behin irten ondoren, ez zara leku zehatz batekoa bakarrik izaten.



Vía gráfica

• diseinu grafikoa
viagraficzorrotza@gmail.com

Udalak hiru aukera aurkeztu ditu Zorrotzako Muturreko berroneratzean aurrera egiteko

Bilboko udalak hirigintzako izapideak hasi ditu Zorrotzako muturreko hirigintza-antolamenduan aurrera egiteko eta parte hartzeko prozesua ireki du herritarrei aukera ezberdinak azaltzeko.



AITOR MARIN

Bilboko Udalak Zorrotzako Muturreko Plan Orokorra aldatzeko prozesua abiatu du. Horretarako, hasierako dokumentu estrategikoa aurkeztu du, eta horrekin batera, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren izapidea jarri da martxan. Dokumentuak hiru antolamendu aukera planteatzen ditu, eta horiek izango dira otsailean eta martxoan garatzen ari den herritarren parte-hartze prozesuaren oinarria. Prozesu horretan dagoeneko bi informazio-saio burutu dira, Udalttegiko hallean informazio panelak daude ikusgai, eta hainbat bilera eta auzoko ikastetxeetan saioak egiten ari dira.

RENFEren trenbidea lurperatzea hiru planen elementu komuna da

Lehenengo aukera “Lotura” proiektuak planteatzen zuena da. Antolamendua Ibaizabal eta Kadagua ibaien ertzak lotuko lituzkeen eratzun berde baten inguruan egituratuko litzateke, eta ardatz nagusi batek Zorrotzaurre eta Burtzeña lotuko lituzke. Proposamenak 2.000 etxebizitza inguru aurreikusten ditu, %55 libreak eta %45 babestuak, baita merkataritza eta hirugarren sektorerako 130.000 metro koadro ere.

Bigarren aukerak antzeko oinarria du, baina ardatz nagusian eraikin linealak proposatzen ditu, eta dorre isolatu batzuk hiri-paisaiaren erreferentzia izango lirateke. Etxebizitza kopurua antzekoa litzateke (2.000 inguru), %53 libreak eta %47 babestuak. Kasu honetan, merkataritza eta hirugarren sektorerako 132.000 metro koadro aurreikusten dira.

Hirugarren aukerak jarduera ekonomikoari eta espazio mistoei garrantzi handiagoa ematen die. 1.850 etxebizitza inguru planteatzen ditu (%52 libreak eta %48 babestuak) eta azalera handiagoa gordetzen du jarduera ekonomikoetarako.

Hiru proposamenek elementu komun bat dute: RENFEren aldiriko trenbidea lurperatzea. Horrela, gaur egungo hesi fisikoa kendu eta espazio hori parke berriak sortzeko eta Zorrotza Muturra eta Zorrotzaurre lotzeko sarbide berriak egiteko erabiliko litzateke.

Prozesuaren hurrengo urratsa Plan Orokorren Aldaketa garatzea eta onartzea izango da; ondoren, jendaurrean jarriko da alegazioak aurkezteko. Behin-behinean onartu ondoren, dokumentua azken onarpenerako bidaliko da. Aldi berean, trenbidearen inguruko informazio-azterlana ere izapidetzea aurreikusten da.



1. AUKERA

2.070 etxebizitza
(% 45 babestuta, % 55 libre)

130.000 m² jarduera
ekonomiko; eta, 211.000 m²
espazio libre, ekipamendu
eta bide-sare



2. AUKERA

2.020 etxebizitza
(% 47 babestuta, % 53 libre)

132.000 m² jarduera
ekonomiko; eta, 195.000 m²
espazio libre, ekipamendu
eta bide-sare



3. AUKERA

1.840 etxebizitza
(% 48 babestuta, % 52 libre)

177.000 m² jarduera
ekonomiko; eta, 202.000 m²
espazio libre, ekipamendu
eta bide-sare

● ETXEBIZITZAK	● MERKATARITZA ETA HIRUGARREN SEKTOREA	● HIRUGARREN SEKTOREA
● IKUS-ENTZUNEZKO HUB-A	● EKIPAMENDUAK	● BERDEGUNEAK

Auzo Elkartearen eskariak

Udalak aurkeztutako plan hauek argitara eman ondoren, Zorrotzako auzo-elkarateak eskari multzo bat aurkeztu du proiektua auzoaren epe luzerako beharretara egokitzeko.

Trenbideari dagokionez, elkarateak lurperatzea eta geltokirako bi sarbide jartzea eskatu du: bata Clara Campoamorretik eta bestea Cordelería 11 paretik. Etxebizitzari dagokionez, tipologiak nahastea proposatu dute, itsasadarraren ondoko etxebizitza librearen eta Kadagua aldeko etxebizitza babestuaren arteko bereizketa saihesteko.

Mugikortasunari dagokionez, honako hauek iradokitzen ditu Auzo Elkarateak: porturako tren-trazadura zaharra oinezkoentzako eta bizikletentzako pasealeku gisa mantentzea; Hubetik Burtzeñako zubirako sarbidea hobetzea eta bidegorria Montevideo-Fray Juan biribilgunearekin lotzea. Barakaldorako oinezkoentzako zubi bat eta Zorrotzaurreko beste lotune bat ere proposatu dituzte.

Era berean, Auzo Elkarateak eskatu du Euskal Errotak eraikina zuzkidura-erabileretara bideratzea eta industria-ondareko elementuak kontserbatzea. Aisialdia eta berdeguneei dagokienez, aurreikusitako biztanleriaren hazkundeari erantzuteko, parke handi bat sortzeko beharra nabarmendu da, eta kiroldegian, Kadaguatik gertuko eremuan, estali gabeko igerilekuak eraikitzea.

Hirigintza-marketina ez izateko eskaera

ZMen Bilboko Udal talde potikoengandik jasotako balorazio bakarra EH Bildurena izan da. Koalizio subiranistak zalantzan jarri du planaren iragarpena eta "hirigintza-marketin" hutsean gera ez dadila eskatu du. Gogorazti du antzeko proiektuak lehen ere iragarri direla baina urteetan geldirik egon direla, eta 2010-2012ko planak ere ez direla gauzatu, eremuan oraindik industria jarduerak daudelako. Horregatik, oraingoan benetako garapena, herritarren parte-hartzea eta lur publikoaren zati handia babes ofizialeko alokairuko etxebizitzetara bideratzea eskatu du.

TXEMA GARCÍA: Maratoiako korrikalaria

“Ehun maratoi egitera heltzea gustatuko litzaidake, eta azkena Atenasen egitea”

53 urte eta 72 maratoi atzean dituela, Txemak kirol bat baino askoz gehiago bihurtu du running-a: bidaiatzeko, bere buruaren mugak gainditzeko eta bizitza ulertzeko duen modua da. Ez du markarik nahi, esperientziak bizitzea baizik; eta 60 urte bete baino lehen 100 maratoi bukatzea du amets, baita bere ibilbidearen zirkulua Atenasen ixtea ere.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: AITOR MARÍN

Gogoratzen noiz eta zergatik hasi zinen korrika egiten?

Betidanik gustatu izan zait kirola. Asko jokatzin nuen areto-futbolearen eta futbolearen. Korrika egitera irtetea kirola egiten jarraitzeko modurik azkarrena eta praktikoena izan zen, inoren mende egon gabe. Zapatilak jantzi eta hasi nintzen.

Noiz egin zenuen maratoirako jauzia?

24 edo 25 urterekin egin nuen lehen maratoia. Garai hartan ia ez zegoen herri lasterketarik: Santurtzitik Bilbora eta Herri Krosa ziren ia bakarrak. Proba horiek egin ondoren, maratoi erdi bat egitera animatu nintzen... eta hurrengo pauso logikoa maratoia zen.

Nolakoa izan zen lehen esperientzia hura?

Katastrofikoa. Kilometrozo oso justu eta ezjakintasun osoz joan nintzen. Ez zegoen egungoak bezalako entrenamendu-plan espezifikorik. Bukaeran, karranpak izan nituen bi hanketan. Harrotasun hutsagatik iritsi nintzen helmugara... eta poltsa jaso behar nuelako.

Eta hala ere, errepikatu egin zenuen.

Bai, baina ez berehala. Bi urte behar izan nituen berriro saiatzeko.

Zenbat maratoi amaitu dituzu gaur arte?

Guztira, 72 bukatu ditut. Baina kopurua baino garrantzitsuagoa da maratoia baliabide ezin hobe bihurtu dela nire bi zaletasun handiak lotzeko: kirola eta bidaiak alegia. Gehiago egiten jarraitzeko asmoa daukat, baina beti ezagutzen ez ditudan lekuetan.

Nongo maratoietan egon zara orain arte?

Leku asko eta askotakoetan. European Maltan, Bruselan, Budapestean, Krakovian... Europatik kanpo, Estatu Batuetan, Buenos Airesen, Jamaikan, Marrakechen, Kyoton... Hiri bakoitzak badu zerbait berezia.

Hurrengo aukeratzekoan, zerk du garrantzi handiagoa?

Nire bidaiak guztiak ez dira kirol asuntuengatik, baina herrialde batean nagoela bertan maratoi bat egiten bada, animatu egiten naiz. Adibidez, hiru egun eman nituen Kanputxean



“ **Nire bi pasio nagusiak batu ditut: kirola eta bidaiatzea** ”

“ **Egondako guztietatik, maratoi autentikoena Bostonekoa da; oso hunkigarriena izan zen** ”

“ **Nire markarik onena etxean izan zen: 3 ordu eta 18 minutu Bilbon** ”

“ **Inoiz ez dut lasterketarik abandonatu** ”

eta bazen bat... ba, noski, korrika egin nuen. Eragozpen nagusia da gehienak hil beretan pilotzen direla: apirilean, urrian eta azaroan.

Nongo giroak harritu zaitu bereziki?

Krakoviakoak txundituta utzi ninduen. Nahiz eta kanpoan korrika egiten duzunean dena desberdina izan. Jamaikan, adibidez, “reggae-maratoia” izan zen. Hiri guztiek egiten dute bat probarekin eta bakoitzak bere nortasuna eta xarma berezia du.

Bat bakarrik gomendatu beharko bazenu, zein litzateke?

Niretzat, benetakoena Bostonekoa da. 2002an korritu nuen, Dorre Bikien atentatua gertatu eta urtebetera, eta bereziki hunkigarria izan zen. Enblematikoena da. New Yorkekoa ere korritu dut, “sei majors”-etako bat hau ere, baina turistikoagoa eta komertzialagoa da.

Nola prestatzen zara?

Diesel korrikalaria naiz, herri lasterketetako, ez pentsa! Zorrotzan Josu Fernández edo Montse Vázquez bezalako crackak baditu-

gu; ni ez nago maila horretan. Urte asko daramatzat entrenatzen, baina ez dut oso saio zorrotzik egiten eta ez dut erritmo handirik bilatzen. Nire helburua ez da markak hobetzea, duintasunez amaitzea baizik. Mugitzen naizen denboretarako, ez dut entrenamendu espezifikorik behar.

Nire oinarria fondoa da: eguraldia ona bada, kalean entrenatzen dut; bestela, bi orduko zinta-saioa gimnasioan. Batzuetan hiru spinning saio lotzen ditut jarraian...

Lesio handirik izan duzu?

Korrika egiteagatik, ez. Hain zuzen ere, ez dudalako karga handirik egiten, ezta entrenamendu zorrotzik ere. Adinean aurrera egin ahala, eragozpenak ohikoak izaten dira, eta haiekin bizitzera ohitu behar gara. Lasterketa txandakatzen dut bizikleta estatikoa eta spinning-arekin.

Hori bai, lesio larri bat izan nuen... baina ez korrika egiteagatik. Lagun batzuekin oporretan pinua egiteagatik izan zen. Aldaka hautsi nuen, bi ilte jarri zizkidaten eta astebate egon nintzen ospitalean. Medikuek batzuek esan zi-



ERROMA



KYOTO



LANZAROTE



PHILADELPHIA




VIENA



BUCAREST



FLORENTZIA



MIAMI

daten ez nuela berriro lehen bezala korrika egingo... Hilabete eta erdian, ordea, trostan nembilen. Kirolak errekupezteko eta hobetzeko gaitasun hori ematen du. Martxoan operatu ninduten eta urte bereko azaroan Lanzaroteko maratoia korritu nuen.

Zer pasatzen zaizu burutik 30. kilometroko "horma" ospetsuan?

Batzuetan horma hori 20.ean jasan dut (bare egiten du). Baina aurreikus ezin daitezkeen gauza horiek dira lasterketa hau hain erakar-garri egiten dutena. Edozein xehetasun txiki geldiaraz zaitzake... Nire ibilbidean arazo dezente izan ditut, batez ere deshidratazioak.

Zer sentitzen duzu helmuga zeharkatzean?

Lortutako helburu bat gehiago da, koska bat gehiago. Maratoia erdi mentala eta erdi fisikoa da. Azken bizpahiru kilometroetan, iritsiko zarela ikusten duzunean eta jendea anima-

tzen entzuten duzunean, dena errazagoa eta politagoa bihurtzen da.

Inoiz abandonatu duzu lasterketaren bat?

Inoiz ez. Nahiz eta onartzen dudan noizbait egin beharko nukeela.

Zorrotzatik entrenatzen duzu? Baduzu ibilbide gogokoienik?

Nire nukleo gogorra gimnasioa da, baina ir-teten naizenean, Erandio aldera edo Portu Zaharrera jotzen dut. Lehen sarri joaten nin-tzen Errekatorantz.

Oroitzapenak gordetzen dituzu? Baduzu erritualik?

Dorsal eta domina guztiak etxean gordetzen ditut, denbora markekin batera, horretarako propio erosi nuen esekitoki batean. Eta huts egiten ez duen errituala amaierako garagardo hotza da.

// Kanpoan, markak hobetzea baino, hiriaz gozatzea lehenesten dut //

Zer da *runninga* zure egungo bizitzan?

Bizimodu bat.

Amaitu esaldia: “Korrika egiteak eman dit...”

Lagun handiak, osasuna, indarra... gauza asko.

Zure markarik onena?

3 ordu eta 18 minutu. Bilbon, 2022an. Kanpora joaten naizeanean, hiriaz gozatzea lehenesten dut markak hobetzea baino.

Zure oroitzapenik onena?

Krakovian. Min hartuta nindoan, korrika egiteko asmorik ez zuen eta jada hilda dagoen lagun batekin. Ebakuntza bat egin berri zeukan arren, nirekin joateko konbentzitu nuen. Kantuan atera ginenean, marka ona egin genuen eta jendeak eskertu egin zigun sortu genuen giroa. Oso berezia izan zen.

Eta esperientziarik txarreana?

Edinburgon. Ez genuen dortsala hartzeko tokia aurkitzen. Lasterketa abiatu zen, eta dortsalaren bila jarraitzen genuen... Bero handia... Anabasa, baina bukatzea lortu nuen.

Beste pasadizoren bat?

Athleticen Kopako finala galdu nuen 2024an, sarrera izan arren, Erroman korritzeagatik. Nire txartela lagun bati oparitu nion. Finala hotelean ikusi genuen, oso berandu oheratu ginenean... eta maratokia korritu nuen Athleticen kamisetarekin. Ospakizunak helmugan jarraitu zuen.



Baduzu hiriren bat egiteke?

Asko. Baina burutik ezin kendu Rio de Janeiro daukat. Prestatuta izan dut eta oraindik ezin izan naiz joan. Errespetua ematen dit hau esateak, beti sor daitekeelako arazo edo lesioaren bat, baina nire helburua 100 maratointara iristea da. Helburua lortzen badut, azkena Atenasen izango da.

Noiz arte ikusten duzu zeure burua korrika egiten?

53 urte ditut. 60ak bete baino lehen 100 maratointa iristea gustatuko litzaidake, eta argi daukat ehungarren eta azken horrek Atenasen izan behar duela, ibilbidea nolabait borobiltzeko. Lortzen badut, ez dut kirola utziko, baina hori izango da nire azken maratointa.



*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es



**Zorrotzako
labea**

Zugandik gertu

Zorrotza Kastrexana errepeidea, 34
Tfn. 94 441 09 71
Zorrotza - 48013 BILBO

Matrikula zabalik
2024-2025
ikasturtea

The aKdmy

Ingeles eta eskolako laguntza

📞 666017195

📧 the_aKdmy

📍 Zorrotza Kastrexana errepeidea, 7



AGENDA

Martxoak 20, ostirala

20:00. D8 Sorkuntza Faktorian.
Kontzertua: TOTAL CHAOS + RAT-ZINGER. Sarrera: 18€

Martxoak 21, larunbata

20:00. D8 Sorkuntza Faktorian.
Kontzertua: XPRESIDENTX + SINPEKADO * DISKONFORMES
Sarrera: 12,75€

Martxoak 27, ostirala

KORRIKA EGUNA.
Ikusi kontrazalako iragarkia.

Martxoak 28, larunbata

20:00. D8 Sorkuntza Faktorian.
Kontzertua: REBELIOM DO INFRAMUNDO. Sarrera: 16€

Martxoak 29, igandea

8:30. KORRIKA ZORROTZA Ara helduko da
18:00. D8 Sorkuntza Faktorian.
Kontzertua: THY CATAFALQUE.
Sarrera: 27/30€

Apirilak 10, ostirala

19:30. D8 Sorkuntza Faktorian.
Kontzertua: LAS LEYES SALVAJES (Héroes del Silencio tributoa) + LOCOS DE LA CALLE (El Último de la Fila tributoa) + MECANOLOGÍA (Mecano tributoa). Sarrera: 15/20€

Apirilak 12, igandea

19:00. D8 Sorkuntza Faktorian.
Kontzertua: BADASONIC ROCKSTEADY & SOUL REVUE.
Sarrera: 12/15€

Apirilak 18, larunbata

20:00. D8 Sorkuntza Faktorian.
Kontzertua: VALKYRIA.
Sarrera: 12,50€

Apirilak 28, asteartea

20:00. D8 Sorkuntza Faktorian.
Kontzertua: PRIMITIVE MAN.
Sarrera: 23/25€

Zure elkartearen ekitaldiak ZMeko agendetan (aldizkarian eta webgunean) iragartzeko, zm@zorrotzmorrotz.eus helbidera idatzi.



Zaldi bat

Maddi Ane Txoperena Iribarren.
Txalaparta. 2026. 220 orrialde.



Haurra jaio eta sei hilabetera mendira joaten hasiko da Miren, Unai hil eta bortz urtera. Zaldi bat aurkituko du han, grisagoa marroia baino. Ez edozein zaldi.

Errepidea garbitzen ari den gizon bat, ustekabeko karta joko bat, pilota partida baten ondorena, ligatzeko jarraibideak, denboran poteatzen duen bisita gidatua, autopsia poetiko bat eta hainbat gai esentzial gurutzatuko zaizkio bidean Mirenen ahots zatikatuari: heriotza, dola, maitasuna, espiritualetasuna, eromena, amatasuna, eta, batez ere eta denaren gainetik, laguntasun kontraeranezko bat.

Hauxe da Txoperenaren hirugarren eleberria, eta, oraingoan, ahots eta forma berriez jantzirik dator, bere esentziari uko egin gabe.

Hauxe da Txoperenaren hirugarren eleberria, eta, oraingoan, ahots eta forma berriez jantzirik dator, bere esentziari uko egin gabe.



LATZEN: "Denboraren orbainak"

Maldito Records (2025)



Iazko apirilaren hasieran, Euskal Herriko musika eszenaren erreferenteetako baten itzulera iragarri zen. Izan ere, hainbat urteren ondoren, Oñatiko Latzen taldea 2025eko uztailean Hatortxu Rock jaialdiaren azken edizioan jotzeko elkartu ziren. Baina, kasualitatez, astebete lehenago, auzoko D8 Sorkuntza Faktorian bere zuzeneko indartsuaz gozatzeko aukera izan genuen. Itzulera osteko lehen kontzertua non eta Zorrotzan!

Zorionez, itzulera ez da behin-behinekoa izan. Azken Durangoko Azokan diska berria, estudioko hirugarrena, aurkeztu zuen laukoteak "Denboraren orbainak" izenburupean. Hori ezustekoa! Betiko estilo kementsua mantenduz, 10 abesti berri grabatu dituzte Gas-teizko Silverstar estudioetan, Iker Bengoa teknikariaren eskutik. Abestietako askok bere garaian argitaratu gabeko oinarriak ziren; baina taldea desegin zenez, ez zuten argia ikusi. Lau-pistadun soinu mahai zahar bati esker, orain argia ikusi dute.

Ez da lehenengo entzunaldian barreneraino sartzen den horietakoa, baina denbora eskainiz gero, oso gauza interesgarriak aurki daitezke. Eta zuzenekoaz zer esanik ez, pasa den urtarrilaren 10ean Bilboko Santana 27 aretoan sekulako eztanda bizi genuen.

SALAKETA ARGAZKIA



Iturria bai... baina ez han

Auzo Elkarateak hainbat urtez eskatu du Zazpilar-da-Zorroztako Lorategiko atsedenekuan iturri bat jartzea. Hasieran, Udalak adierazi zuen ez zegoela arazorik eskatutako lekuan jartzeko, baina azkenean Zorroztzagana kalean instalatu da. Udalak argudiatu du hoditeriak 50 metro baino gehiagoko luzera izango lukeela eta, eguneroko erabilera berrituta ez dagoenez, ezin dutela uraren edangarritasuna ziurtatu.

Hala ere, kasu horretan ere badira irtenbide tekniko posibleak, hala nola birzirkulazio-ponpa bat edo ureztaketa automatikoko sistema bat.

Gainera, txakurrekin paseatzen duen jende asko ibiltzen den eremua da hau, eta instalatutako iturria ez dago egokituta maskotek beheko aldean ura edan dezaten, nahiz eta hori ere eskatuta egon.

AUZO ELKARTEA



ZORROTZA F.C.
kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!

Zure iragarkia

ZM
aldizkarian

Euskara
sustatu
Zorroztzan!!

Tarifak eta informazioa:
zm@zorrotzmorrotz.eus



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK
Zorroztza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefonoa: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK
Zorroztza-Kastrexana errep. 75
Telefonoa: 94 442 17 12




EULALIA ABAITUA.

Bilbo, 1853/01/25 - Bilbo, 1943-09-16

Arte-diziplina: **Argazkilaritza**

Hari buruz gehiago jakiteko:

- *norberaren gela dokumentala, 2023* (Primeranen ikusgai)
- *Bilboko euskal museoko erakusketa iraunkorra*



Bilboko familia burges batean jaio zen 1853an, Maria Elvira Juliana izenez; baina hilabete gutxi zituela zendutako amaren omenez, Eulalia izena hartuko zuen.

Bigarren Karlistaldian, familiak Liverpoolera ihes egin zuen. Han ezkondu zen, 18 urte zituela, Juan Narciso Olano Lesakakoa ontzigitzarekin, gerora izango zituen lau seme-alaben aitarekin. Eta han piztu zitzaion argazkilaritzarekiko grina. 1876an, senar-emazteak Bilbora itzuli ziren, txalet bat eraiki zuten Begoñan eta Eulaliak argazki-laborategia jarri zuen sotoan.

Lehen argazkiak bere hurbileko jendeari -senideei, haurtzainei, lorezainei,...- atera zizkion eta prestatuagoak omen ziren. Berak esaten ei zien zer jantzi, nola jarri, ... eta atrezoa ere kontu handiz prestatzen zuen. Gerora, herri xumea erretratatzan hasi zen, bereziki emakumeak, haien eguneroko zereginetan eta apaingarririk gabe: Erribera merkatuko sardina-saltzaileak, Nerbioi ertzeko arropa-garbitzaileak, esnezaleak, arrantzaleak, nekazariak, iruleak... Andra haiekin batera,

garai hartako Bilbo zein bertako tradizio eta festak islatuta geratu ziren Eulaliaren argazkietan. Baina haren lanaren zatirik handiena eta garrantzitsuen hori izan bazen ere, argazkilariak ez zuen soilik herri xumearen bizimodua islatu. Burgesiakoa izanda, dirudun jendea ere erretratatzeko aukera izan zuen, haien egunerokoa zein ospakizunetan.

Eulaliaren lekukotza grafikoari esker XX. mendearen hasierako Bilboren historia -gure hiriko bizimodua, ohiturak,...- arkitektura eta paisaia betiko islatuta geratu ziren, baita Bizkaiko landa eremukoak ere. Hala ere, bere ondarea handia izan arren, anonimotasunean hil zen, garai hartan ohikoa zenez, artista handiaren izena senarraren abizenaren itzalean geratu baitzen, eta urteak behar izan ziren Eulaliari zegokion aitortza egiteko.

Gaur egun, ordea, badakigu Euskal Herriko lehen emakume argazkilaria izan zela eta 7.000 argazkitik gora egin zituela. Haietako 2.500 inguru, Bilboko Euskal Museoa gordezen dira. Hil ondoko omenaldi gisa, Txurdinagako kale batek haren izena dauka.

ALAITZ ALDABALDETRUKU

TXOKO FEMINISTA



Feminismoaren helburua den berdintasuna lortzeko, zapalkuntzaren aurkako borroka ezinbestekoa da. Feminismo inklusiboak ulertzen du generoa esperientzia anitza dela, eta elkartasuna beharrezkoa dela zapalkuntza sistemikoen aurrean. LGTBIQ+fobiak, ordea, bazterketa eta indarkeria legitimatzen ditu, eta horrek feminismoaren oinarritzko balioekin talka egiten du. Horregatik, bidezko feminismo batek generoagatik zapalkuntza pairatzen duten pertsona guztien eskubideak eta duintasuna

defendatu behar ditu, denontzako askatasun handiagoa eraikitzeko.

Horregatik, ez da bateragarria feminista eta aldi berean LGTBIQ+fobia izatea, komunitate honetako pertsonak ere, emakumeek bezala, patriarkatuak eta hetero-arau zorrotzek eragindako zapalkuntza pairatzen dutelako. Feminismoak emakumeen eta genero-aniztasuna eta bizipenaren sustapena bilatzen badu, ezin ditu eredu sozial eta ekonomiko berak zapaltzen dituen beste pertsonak kanpoan utzi, ezta haien identitate zalantzan jarri ere.

IRATZE PÉREZ



Kurutxaga (802 m.)

Argazkia: Mendikat

MANU COBO

Triano/Grumeran mendien gailur arro-katsua, hegoalderago, Galdamesko haran bildua menderatzen dauela. Gailurra ka-reharri zuriko mole batek osatzen dauen arren, bertara iristeko ez dago zailtasunik. Magalean Arenazako haitzuloak dagoz, labar-pinturekaz, eta Euskal Herriko aztarnategi garrantzitsuenetako bat da.

Gailurrerako sarbide azkarrena Galdamesetik (168 m) abiatzen da. Errepide batek Akendibar auzora (311 m) eramango gaitu hogei minutuetan, eta beste ordubeten Telitulanda lepora (627 m), gailurraren ekialdera. Aldape edo Zepal gailurra gertu itziko dogu gure eskumera. Handik Kurutxaga (802m) mendiaren gailur arrokatsura iritsiko gara. Bertan, Gorbeiaiko gurutzearen



Argazkia: Wikiloc

(1481m) erreproduzio txiki bat ikusiko dogu. Horren azpian, beste erreproduzio bat dau: eskoilaren funikularra, mendizale postontziaren funtzioa betetzen dauena.

Auzotik joatea gomendatzen detsuet, Eretzarako bidea jarraituz, Saratxora helduko gara, handik Eretzara artzez igo beharrean, eskumatik doan pista jarraituko dogu Saratxo aterperarte (585 m). Eskumaldetik jarraituko gara, Aldape gailurra (713 m) egoaldeko izurrietatik inguratuz, Telitu lepota (627 m) kokatuko gara. Hararte heldu barik, pista batetik jarraituko gara lepotxure heldu arte, handik tontorrerarte (802 m). Itzultzeko, Galdamesen (S. Pedron) hartuko dogu busa, ta hogeieta ateratzen dala ordubiro, Muskizera, Santurtzira edo Portugaletera.

RISKO

Burdindegia

Zorrotza Kastrexana, 7
Telefona: 94 441 64 86



FARMAKOTEGIA

SUSANA

URRITIKOETXEA

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tlfo. 94 441 61 46



Plater konbinatuak,
hanburgesak,
oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

Izarrak, nondik diz-diz?

Egunotako albiste izugarri eta irudi zitelen artean bideo bat harrapatu dut scroll saio nahi baino luzeago horietan. Izenik ezagutzen ez diodan influencer -eragintzaile proposatu beharko gure akademia txit gorenari, ala?- bat mintzo Malagako zinema festibaleko alfonbra gorrian. Kasetariak galdetu zera, ea azkenaldiko film espainiarren bat gomendatu dezakeen -gogora bedi azkenaldiko- eta eragintzale delakoak, aurpegia talo gelditu ostean -pero... peli, qué rollo?-, horrelaxe bota du: Bai, ochoapellidoseko berria, aurrekoan ikusi nuen eta bai gustatu!

Erantzun ona eragintzaileak, eragin irismen handikoa, alegia; ezin gutxiago espero Instagramen 568.000 jarraitzailetik gora dituen eragintzaile peto honengandik. Ona bai, ez onena. Izan ere, espainiar errefracu bilduma oparoak dioskun bezala, edozein santuri otoitz egiten dio Jainkoa ezagutzen ez duenak. Nola ahaztu, bada, Dani Güiza futbolari ohiak elkarrizketa batean erantzun zuena, hurrenez hurren, film eta aktore gustukoengatik galdetu



ASIER URKIZA

“ Zer egiten

dute influencerrek

zinema

festibaletan?

Kexa azaldu dute

dagoeneko zenbait

aktorek, eurek

-zera, zinemak- izan

behar dutelakoan

horrelako sari

banaketen erdigune

eta ez jarraitzaile

ugari izan beste

meriturik ez duen

influencer saldoak

ziotenean. Torrente (filma), Torrente (aktorea -Santiago Segura esan gura zukeen, baina tira-) eta emakumezko aktorea... bai, zera, Torrenten azaltzen den hori...

Jakina denez, ezin da sekula gutxietsi espainiar intelligentsia, hiru buruko herensugea baino beldurgarriagoa berau. Kontua da, konturik badago behintzat, biralizatu egin dela zinema festibaleko sarkinaren bideoa eta, horrekin batera, lehendik ere bazebilen eztabaida ostera ere piztu. Zer egiten dute influencerrek zinema festibaletan? Kexa azaldu dute dagoeneko zenbait aktorek, eurek -zera, zinemak- izan behar dutelakoan horrelako sari banaketen erdigune eta ez jarraitzaile ugari izan beste meriturik ez duen influencer saldoak. Koma bat ere ez diogu kenduko aktoreen adierazpen txit errespetagarriari. Hori bai, galde diezaiotela beren buruari -edo tira, galdetuko diegu guk- ea zenbateraino den haiateko askoren distira gaitasun dramatiko eta jardun artistikoaren ondorio, ala, zer dakit nik -ideia zoro bat- ikusleen artean izan dezaketen balizko jarraitzaileen araberakoa. Ez ote dira, haiek ere, influencer?



Zorrotzako Muturrerako planak auzoko beharriari aurre egin behar dizkio

Zorrotzako Muturrerako bigarren planaren aurkezpenaren ondoren, Zorrotzako Auzo Elkarteak kideok ezinbestekotzat jotzen dugu proiektuak auzoaren eta hiriaren beharrei benetan erantzungo dieten hainbat hobekuntza jasotzea.

Lurperatzeari dagokionez, trenbidea lurperatzea eta geltokirako bi sarbide sortzea aldarrikatzen dugu: bata Clara Campoamorretik, eta bestea Montevideo etorbideetik, Soka kaleko 11. zenbakiaren paretik.

Etxebizitzaren arloan, gure ustez beharrezkoa da tipologia nahasketa errearen aldeko apustua egitea, salmenta libreko etxebizitzak (itsasadarraren ondoan aurreikusitakoak) eta babes ofizialeko etxebizitzak (Kadagua aldean planteatuta daudenak) ez bereizteko. Auzo berri bat eraiki behar da oreka eta kohesio sozialaren irizpideekin. Gainera, etxebizitzaren eraikuntza Molinos Vascos eta Cordeberia zaharrera hurbiltzea proposatzen dugu, eta hirugarren sektoreko erabilera Hub-aren eremuaren ondoan kokatzea.

Mugikortasunari dagokionez, honako hauek proposatzen ditugu: portura sartzeko trenbide zaharra oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbide gisa



ZORROTZAKO AUZO
ELKARTEA

66 *Auzo Elkarteak ezinbestekotzat jotzen dugu proiektuak auzoaren eta hiriaren beharrei benetan erantzungo dieten hainbat hobekuntza jasotzea*

mantentzea; ikusentzunezko hubetik Burtzeñako zubirako sarbidea erraztea; bidegorria Montevideo-Fray Juan etorbideko biribilgunearekin lotzea; biztanleria-kopurua handitze logikoaren aurrean behar den aparkalekua aurreikustea; eta oinezkoentzako zubi bat eraikitzea Zorrotzako Muturra eta Barakaldo lotuko dituen. Era berean, funtsezkoa iruditzen zaigu eremua urbanizatzea eta Renferen trenbideak lurperatzea etxebizitzak eraikitzen hasi aurretik.

Ekipamenduei dagokionez, ezinbestekoa da osasun-zentroa Montevideo-Fray Juan etorbideko biribilguneetik ahalik eta hurbilen jartzea eta ekipamendueta-

rako erreserbatutako gainerrako espazioen xedea argi eta garbi zehaztea.

Ondareari dagokionez, Eskal Errotak eta kordeldegia zaharra zuzkidura-erabileterara bideratzea eskatzen dugu, eta ez hotel batera edo antzeko beste erabilera batzuetara. Halaber, Alzolaren zubia oinezkoentzako eta bizikletentzako pasabide bihurtzea proposatzen dugu; era berean, Saemat-eko hormartea kontserbatzea, bere mendi-lerroko silueta bereziarekin, baita Zorrotzako tailerrak ere; eta auzoarentzat balio historiko handia duten ondare elementuak babestea, hala nola La Punta kaia, itsasadarra zeharkatzen zuen antzinako gasolinaren geralekua eta Landa parkeko mineral-kargaleku zaharraren hondakinak.

Berdeguneei eta aisialdiari dagokienez, ezinbestekoa da Zorrotzan aurreikusitako populazio-hazkundeari erantzungo dion parke handi bat sortzea, baita estali gabeko igerilekuak eraikitzea ere, Kadagatik gertu dagoen ingurunea aprobetxatuz.

Azkenik, berretsi nahi dugu Sader eta Profersa lehenbailehen lekualdatu behar direla. Auzoaren eskaera historikoa da, eta funtsezko baldintza bizilagunen osasuna eta bizi-kalitatea bermatzeko.



Oier

Bai, auzotik pasatu den guztietan parte hartu izan dugu kuadrillan. Ohitura modukoa bihurtu da jada.



Rebeka

Bai, aurten ere parte hartuko dut. Ilusio handiarekin gaude eta eguna heltzeko irrikitan.

AIERT COBO
eta ENEKO GARCÍA

24. Korrika

Parte hartuko duzu aurten?



Mikel Xabier

Bai, txikitatik parte hartu dut, batez ere euskara bultzatzeko duen helburuarekin bat egiten dudalako.



Itsaso

Bai, beti hartzen dut parte. Gainera, aurten lekukoa eramango dut eta ilusioz beteta eta gogotsu nago. Goatzeko prest!



Julen

Bai, gustatuko litzaidake. Ea lagunen bat edo beste konbentzitzen dudan kilometro pare bat egiteko!



ZORROTZA HERRIGINTZAN



ZORROTZAKO BATZOKIA

Erreserbetarako telefonoa: 94 405 92 63
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)

**iKasi
MiKasi!**

**0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,
ikastetxe publikoetan eta
Zorrotzatik irten gabe**

CEIP ZAZPILANDA-ZORROZOTI ILHI
Pinadia etxaldea, 6. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 48 75
📧 zuzendaria@zazpilandaeskola.eus

CEIP ZORROTZA-FRAY JUAN ILHI
Ikastalde etxaldea, 12. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 00 21 • 📞 94 442 00 21
✉ 014159aa@hezkuntza.net

L.e.a. ZORROTZA B.A.I.
San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 439 33 34 / 688 861 374
☎ 94 439 97 41
✉ 015078aa@hezkuntza.net
www.ieszorrotzabhi.hezkuntza.net

24.korrika **aek**
Euskara gara
Aharretzekin Bilboan
2024ko martxoaren 19tik 29ra

korrika.eus

📷 📺 📱 📞 📧 📧 📧 📧

bertso poteoa

Nerea Elustondo

Sustrai Colina

Antolatzaileak:
aek
ZORROTZA B.A.I.

Laguntzaileak:
ZM
ZORROTZA HIRIBURU
Zorrotza Herri Administrazioa

Babeslea:
B
Bilbao
BILBAO

**Martxoak 27, ostirala. 19:15etan
Azoka parketik hasita. ZORROTZA**



MARTXOAK 27, ostirala

ZORROTZAKO *korrika eguna*

- 17:00** AURPEGI MARGOKETA
- 17:00** HERRI KIROLAK: zaku-lasterketa, soka-tira, txingak, lokotxak, gurpil-arrastea.
- 17:00** DISKO FESTA “Dantzatzeko prest”
- 17:00** IHES GELA. “Mitologia”. 1go Saioa. (8 urtetik aurrera).
(BEHARREZKOA DA IZEN EMATEA: zorrotzaeuskaraz@gmail.com)
* PLAZA MUGATUAK!
- 17:45** IHES GELA. “Mitologia”. 2. Saioa. (8 urtetik aurrera).
(BEHARREZKOA DA IZEN EMATEA: zorrotzaeuskaraz@gmail.com)
* PLAZA MUGATUAK!
- 18:30** ERROMERIA
- 19:15** BERTSO POTEOA (Azoka parketik hasita):
Sustrai Colina / Nerea Elustondo

MARTXOAK 29, igandea

- 08:30** KORRIKA ZORROTZAra helduko da
- 12:15** AZKEN kma + BUKAERAKO JAIA.
(Bilbon)

* Mezuak korrikan

Martxoaren 19tik 29ra utzi zure mezua Auzokako lekukoan